

# Ze barri

Mallabiko Udal Aldizkaria

7 zeb. 2010eko ABENDUA

**Mallabitik tren  
pasatzea  
alternatiba bat**

**2011 rako  
aurrekontuak**

**Zer pentsatzen  
dute  
Mallabitarrek?  
Bertan inkestaren  
emaitzak**

**Bizkaiko Batzar  
Nagusiek onartu dute  
Trabakuako arazoari  
konponbide bat eman  
behar zaiola**



## Aurkibidea

Sarrera .....	3
Donagarai-Egia-Asuntza basopista amaitzeaz dago jada .....	4
Hasi dira kalbario kaleko urbanizazio lanak .....	4
2011rako AURREKONTUAK / PRESUPUESTOS para el 2011.....	5
Inkestaren emaitzak / Resultados de la encuesta .....	6-7
Inkestaren emaitzak / Resultados de la encuesta .....	10-13
Inkestari buruzko hausnarketa .....	14-15
Laburbilduta, hainbat barri.....	16

# Sarrera ■■■

**E**sku artean duzun ale honetan 2011rako aurrekontuez aparte Mallabiko Plan Orokorreko aurrerakina posible ahal izateko egin zen inkestaren emaitzak eta euren balorapen txiki bat aurki dezakezu beste hainbat gauzen artean. Azken hauek azaroan kaleratu genuen alearen osagarri dira.

Herrigintzan proiektuak sortzea eta hauek burutzen jakin ahal izatea oso garrantzitsua da baina, oinak lurrean ditugula. Amets egitea sana da eta amets hauek gauzatzeko ariketak egitea are sanoagoa. Sarri, ideia xume bat gorpuzten hasten da eta ondoren proiektu alternatibo bihurtzen da. Fase horretan aurkitzen da Eusko Trenbidearen bikoizketaren ondorioz Mallabirako proposatu genuen geltokiaren ideia adibidez.

Beste batzutan, ekin eta ekin aurrera ateratzea lortzen dira ideia ezberdinak, Trabakuko pasabidearena bezala. Hainbeste urte pasa eta gero, azken lau urtetan hiru aldiz aurkeztu izan da proposamena Batzar Nagusietan eta azkenean onartu da. Batzar Nagusiek Aldundiari eskatu diote pasabide hori beharrezkoa dela eta egin beharra dagoela. Lehenengo ezetzaren ondoren ezin dugu atzera egin, ekin berriro,

bide ezberdinak erabili, ate ezberdinak jo, ekin eta ekin. Azkenean zerbait lortuko da. Badakigu bidea oso luzea izango dela eta beti aurkituko gara beste lehentasun batzuk daudela, inoiz ez dagoela dirurik... jarrai bidezkoa uste dugun horren atzean borrokatzen, merezi du eta.

Idea eta proiektu hauek eta askoz ere gehiago Mallabiko Plan Orokorrean biltzen dira. Hor jasotzen da gure herri eredua, zein Mallabia nahi dugun biharko egunean. Imajinatu ezazu zein Mallabia nahi duzun hemendik hamar urtetara. Hori da Plan Orokorrean erabaki behar dena: zerbitzuak, atsedenlekuak, egitura ezberdinak, ingurumenaren babes neurriak... Merezi du Mallabiaren alde apustu egitea azken batez bertan bizi garelako eta bertan bizi nahi dugulako. Eta ez baduzu uste ere, zure ideia hori guretzat oso garrantzitsua da eta izan daiteke biharko egunean proiektu bezala bihurtuta ikustea. Nola uste duzu ba pilotalekuko kirolgunea sortu dela ba?

Beraz lerro hauetatik parte hartzera konbidatzen zaitut, Plan Orokorrearen inguruan antolatuko diren batzarretan parte hartzera. Egin dezagun Mallabiren aldeko apostu.

# Donagarai-Egia-Asuntza basopista amaitzear dago jada



Trabakuatik Urko mendi ingurura zabaltzen da baso pista hau. Mallabiko paraje ikusgarrienetariko batetaz goza dezakegu bertan eta hainbat mendizale eta mendiko bizikleten zaleengandik ezaguna da bertakoetaz aparte. Bertan biltzen dira 200ha baso lur baino gehiago, insignis pinuak okupatzen dutena gehien bat. Ederki asko dakite zer nolako arazoak zituzten euren egurra ateratzeko paraje horietatik egurgileek.

Azken lau urteetan hainbat baztar burutu ondoren bertako lurjabeek eta Udalak 2009ko martxoan

lortu zen Bizkaiko basogintza Elkarteak "Donagarai-Asuntza-Egia" basopistaren proiektua burutzea. Ondoren, 2009ko irailean, arazo ezberdinak zirela medio eta hauek saiestu nahiean, hasierako proiektuak aldaketa batzuk izan zituen eta proiektu definitiboa aurkeztu zen.

Bost kilometro ta erdiko pista egin da. Bizkaiko Foru Aldundiak %75 lagunduta. Bertako lurjabeek elkarte bat osatu dute eta elkarte hau izango da udaletxearen laguntzarekin basopista hori gestionatuko duena. Hasiara batetan

200.000€ aurrekontua bazeukan ere, uste baino merkeago aterako da. Ekin enpresa izan da lanak burutu dituen.

Maiatza inguruan hasi ziren lanak eta irailaren amaierarako amaituak izatea espero da.

Bost helburu garbirekin egin da basopista hau:

- Beharrezkoa zen inguru hauetako egur masa, ingurumenaren mantenu, iraupen eta gestiorako. Bertako biodibertsitatearen, lurralde hau jasaten ari zen higadura zaintzeko eta hidroloji orekarako.
  - Inguru honetako egur sektorea reaktibatu, bertako lur eta basoen balioa indartzuz.
  - Sute bat gertatzen ba zen inguru horietan ez zegoen lurrez nondik heldu, honek zekarren arriskuarekin.
  - Nekazal ekonomia indartzeko.
  - Basoan zehar haisialdia lagundu eta bultzatzeko herritarren artean.
- Basopista honetatik ezin izango da motordun ibilgailuetan ibili. Honetarako baimendutako bakarrak bertako lurjabeek eta basogintzan aritzen direnak izango dira.

## Hasi dira kalbario kaleko urbanizazio lanak

Urrian hasi ziren Mallabiko Kalbario kaleko urbanizazio lanak. Bertan zolua, hoditeria eta espaloiak berritzeaz gain argi indarraren instalazioa lurperatuko da, mobiliarioa aldatu eta irteerarik gabeko kalea definitiboki izango da. Autoz kale horretara sartu ahal izango diren bakarrak bertan bizi direnak izango dira.

Lanak Lasuen enpresak burutuko ditu eta 246.151€ gaitik adjudikatuak izan dira.



Zain egon dira lan hauek egiteko Kalbario kalean bertan hainbat etxebizitza berri egitekoak zirelako eta etxe berri hauek egin baino lehen ez zuelako merezi urbanizatzen hasia. Baina gaur egun sufritzen ari garen egoera ekonomikoa, eraikuntza alorreko krisia eta etxe eskaria murriztu denez atzerapena jasaten ari da proiektu hori eta urbanizazio lan hauek hasi dira, ezin ziren gehiago atzeratu eta.

Lanak abenduan amaituak egongo dira.

# 2011 rako AURREKONTUAK

## DIRU SARRERAK

1	ZUZENEKO ZERGAK/Impuestos directos	472.000€
2	ZEHARKAKO ZERGAK/Impuestos indirectos	80.000€
3	TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/Tasas por prestaciones de servicios públicos	702.050€
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (Jaurlaritza, Foru Aldundia) Transferencias corrientes (Gobierno Vasco, Diputación)	930.000€
5	ONDARE SARRERAK/Ingresos patrimoniales	4.100€
6	KAPITAL TRANSFERENTZIAK (Jaurlaritza eta Aldundiko subentzioak) Transferencias de capital (subvenciones de GV y Diputación)	226.000€
	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.414.520€</b>

## GASTUAK

1	GOI- KARGUAK/Altos cargos	101.900€
2	ADMINISTRAZIO OROKORRA/Administración general	513.500€
3	GIZARTE EKINTZA/Acción social	153.900€
4	OSASUNA/Salud	12.100€
5	HEZKUNTZA/Educación	426.500€
6	HIRIGINTZA/Urbanismo	169.850€
7	UR SANEAMENDU, HORNIKUNTZA ETA BANAKETA Saneamiento, abastecimiento y distribución de aguas	135.000€
8	HONDAKIN KUDEAKETA ETA BIDE GARBIKETA Gestión de residuos y limpieza viaria	260.600€
9	KULTURA/Cultura	324.670€
10	KIROLAK/Deportes	91.000€
11	ERREPIDEAK, AUZOBIIDEAK ETA HIRI-BIDE PUBLIKOAK Carreteras, caminos rurales y vías públicas urbanas	8.000€
12	ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI EGINDAKO TRANSFERENTZIAK Transferencias a administraciones públicas	53.500€
13	ZOR PUBLIKOA/Deuda pública	154.000€
	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.414.520€</b>

## AURREKONTUEN INGURUAN APUNTE BATZUK

- Azaroan aho batez onartu ziren Udal Plenoan.
- 2010rako 1.807.475€tako gastu arruntak aurreikusi ziren, 2011 ekitaldian berriz 1.843.920€, 36.445€ gehiago.
- Maileguen amortizazioaren eta interesen gastuak gehitu egin dira, 2011 urtean 154.000€ (19.000 interesak eta 135.000 amortizazioa) aurreikusi direlarik, 36.000€ gehiago.
- Udalkutxa aldetik, 2011 urterako aurreikusita dagoena iazkoa baino 81.730€ gehiago dira. Horrela 2009ko likidazioagaitik Bizkaiko Foru Aldundiari bueltatu beharreko kopurua konpentsatu egin da.
- Gizarte ekintzan 2010 ekitaldian baino 8500€ gutxiago aurreikusi dira, etxeko laguntza zerbitzuko onuradunak gutxitu egin direlako.
- Bizkaiko Foru Aldundiak 2010 urterako diru-laguntzak murriztu ditu. Irisgarritasuna, ur hornikuntzetarako eta bide konponketetarako laguntzak kendu ditu. Hemendik aurrera ezin dugu diru honekin kontatu.
- Eskoletako konponketa lanen hirugarren faseari hasiera emango zaio. Bi eta bost urteko haurren solairua egokitu.
- Kultur etxeko teilatuaren konponketa egingo da.
- Brigadako lanetarako iraulkidun furgoneta erosiko da.



# INKESTAREN EMAITZAK / RESULTADOS DE LA ENCUESTA

Azaroan zehar azken “Zer Berri” kaleratu genuen. Bertan Plan Orokorrerako eman izan diran pausu eta asmo ezberdinak jaso eta azaltzen zitzaizuen, etxebizitza eta industriagunetarako alternatiba ezberdinak azaltzeaz aparte. Oraingo honetan ekaina eta uztailean zehar etxe bakoitzera banandu zen inkestaren emaitzak aurkezten dizkizuegu zuek ere jakin dezazuen zer pentsatzen dugun mallabitarrok. Hau ere Plan orokorrean jasota dago. Laister idatzia egongo da Plan Orokorraren aurrerakina eta hau azaltzeko egingo diren batzarretan zuen partehartzea benetan aberasgarria izango dela espero dugu.

## Zein auzunetan bizi zara?

Inkesta bete dutenen %66,6 kaskoan bizi dela erantzuten digu. %28,2ak auzo ezberdinetan eta % 5,1ek ez digu erantzun.

## Zure familia zenbat pertsonaz osatuta dago?

Familien %85,3 bat, bi, hiru edo lau kidez osatuta dago. Familien % 14,7 bost edo sei kidez osatuta dago.

A lo largo del mes de noviembre se repartió el último “Zer Berri” donde de manera muy sucinta se os informaba de los pasos que se han dado para la concepción del Nuevo Plan General de Ordenación Urbana de Mallabia. En el mismo también se recogían las ideas y propuestas que se recogerán en el mismo además de describirnos sin posicionarnos de las distintas alternativas para los suelos urbanizables (tanto para vivienda como industrial). Ahora se os informa de los resultados de la encuesta que se realizó y entregasteis en el Ayuntamiento a lo largo de los meses de junio y julio también recogido en el Plan. Próximamente se terminará de confeccionar el Plan y esperamos que vuestra participación en las reuniones informativas que se organicen y en período de alegaciones sea ejemplar.

## En qué barrio vives?

66,00 % en el casco Urbano., 28,20 % en Núcleos Rurales. 5,80 % No contesta.

## ¿Por cuantas personas está compuesta tu familia?

85,30 % de 1 a 4 miembros. 14,70 % de 5 a 6 miembros.

Znb kide Porcentaje	Bat Uno	Bi Dos	Hiru Tres	Lau Cuatro	Bost Cinco	Sei Seis	Zazpi Siete
%	20,5	17,6	23,5	23,5	8,8	5,8	0

**Zenbat biztanle daude une honetan?** 1.183 pertsona( 2010-09-06).

**Pirámide de Población de Mallabia a 6 de Septiembre de 2010.**

Adinez eta sexuz banatutako taula			
Adina Edad	Biztanleak Ciudadanos	Gizonezkoak Hombres	Emakumezkoak Mujeres
0-10	112	48	64
11-20	100	61	39
21-30	105	48	57
31-40	229	117	112
41-50	208	103	105
51-60	152	77	75
61-70	143	79	64
71-80	95	45	50
81-90	36	16	20
91-100	3	1	2
Guztira	1.183	595	588

## Zure familiako zenbat kidek lan egiten dute?

**¿Cuántos miembros de tu familia trabajan?**

Znbt kide Porcentaje	Bat Uno	Bi Dos	Hiru Tres	Lau Cuatro	Inor Ninguno
%	23,5	52,9	5,8	0	17,6

Sasoi honetan Mallabiko langabetuen tasa INEMen arabera %10,7 izan zan. Gaur egun %8ra jeitsi da. En este período la tasa de parados inscrita en el INEM es del 10,7 %. Hoy es del 8%.

### NON egiten dute lan?

- Mallabian, %34ak.
- Durangaldean, %29,7ak.
- Debabarrenan, %21,2ak.
- Beste lekuren batetan, %14,9ak.

### ¿Dónde?

- En Mallabia 34%.
- Duranguesado 29,7%.
- Bajo Deba 21,2%.
- Otros 14,9%.

### Zure familiako zenbat kidek ikasten dute?

¿Cuántas personas de tu familia estudian?

Znbt kide Porcentaje	Bat Uno	Bi Dos	Hiru Tres	Inor Ninguno
%	11,1	36,1	0	52,7

### Non ikasten dute?

- Mallabian %50ak.
- Durangaldean %26,9ak.
- Debabarrenan %11,5ak.
- Unibertsitatean %11,5ak.

### ¿Donde?

- 50,1% en Mallabia.
- 26,9% Duranguesado.
- 11,5% Bajo Deba.
- 11,5% Universidad.

### Dirulaguntzaren bat jasotzeko aukera lortuko bazenu zein arlotan lan egingo zenuke?

- Nekazaritza-abeltzentzan, %18ak.
- Industrian, %13ak.
- Zerbitzuak (merkataritza...), %46ak.
- Ez du erantzun, %23ak.

### Si tuvieras la opción de obtener una subvención, ¿en qué sector trabajarías?

- 18% agricultura y ganadería.
- 13% industria.
- 46% servicios.
- 23% no contesta.

10. orrialdean jarraitzen du ▶▶



Ez da erresa urtea iruditan laburbiltzea, hemen jasotzen dugu adibide batzuk.

Mila esker herrigintzan lagundu eta laguntzen duzuen guztioi:



Jasokunde eta Mendibil abesbatzak, Mallabiko eskoletako Guraso Elkar-  
tea, Izar Gorri Elkartea,



# Futbito eta Pilota taldeak, Orraitio Euskara Elkartea, Jubilatuen Elkartea, Txondor Elkartea..



eta anonimoki herri hau hain bizia egiten duzuen guztioi.  
(Barkatu baina ezin izan ditugu jaso urriko eta azaroko argazkirik)

# INKESTAREN EMAITZAK / RESULTADOS DE LA ENCUESTA

Mallabiko udalerriko gune eta hiri zerbitzuetan, non uste duzu hobekuntza beharra dagoela?

En el espacio público y servicios urbanos, ¿Dónde crees que se necesita una mejora?

Zerbitzua Sercicio	Lehentasuna Prioridad	%	Azalpenak Comentarios
Pasealekuak, ibilbideak, parkeak <i>Paseos, recorridos, parques</i>	10	24,7	Ez dago pasealeku egokirik eta euren falta oso nabaria da. Pasiatzeko karreteratik ibili behar da, kotxeak aurrean eramateko arriskuriaurre eginez. Aldasolora eta Microdecora espaloiak jartzea eta argizatzea premiazkoztat jotzen da. Hanbreko zonaldea Ermuko oinezkoen bidearekin lotzea ere aipatzen da (lotuta dago). Hilerritik Areitiora doan oinezkoen bidea konpontzea ere aipatzen da. Parkeren bat edo umeekin egoteko teiltuarekin babestutako zerbait faltan botatzen da negua luzea delako eta umeekin non egon ez dagoelako <i>No existen zonas de paseo adecuadas y su falta es muy notoria. Para pasear se debe ir por la carretera con el peligro que conlleva. Es imprescindible conexión con acera y alumbrado entre Aldasolo y Microdero.</i> <i>Conexión peatonal Goitondo – Ermua. Acondicionar el camino entre el cementerio y Alto de Areitio. Acondicionar un espacio cubierto para niños.</i>
Bide konponketa <i>Arreglo de caminos</i>	9	15,1	Zuloz josita daude. Osmatik Mallabira doan bidearen konponketa derrigorrezkoa ikusten da. Mallabirako sarrerak ere. Santrokaztik Berrizera doana (Plantxas) ere aipatzen da. <i>Reparar los baches. Es necesario reparar el camino entre Osma y Mallabia. Reparar el camino de Santrokaz entre Areitio y Berriz.</i>
Kirol eta aisia ekipamenduak <i>Equipamiento Deportivo y de Ocio</i>	8	14,7	Beste herrietara joan behar ez izateko igerilekuak Mallabian bertan jartzea sarri aipatzen da. Frontoiko gimnasioa goizez zabaltzea eta futbito zelaia alboetatik guztiz ixtea ere proposatzen da. Kirol arloan asko egin dela azken urteetan eta dugun herrirako oso ondo dagoela aukera onartzen da. <i>Construcción de Piscinas para no tener que desplazarse a otros municipios. Abrir el Gimnasio del Frontón por las mañanas. Cerrar el campo de futbito por los costados. Se reconoce que se ha hecho mucho en el campo del deporte en los últimos años y que para el tamaño del pueblo está muy bien.</i>
Saneamendu zerbitzua <i>Servicio de Saneamiento</i>	7	11,6	Auzuneetan ez dagoela eta euria egiten duenean ura zikin datorrela aipatzen da. <i>En los barrios no hay servicio de saneamiento. El agua potable está sucia cuando llueve.</i>
Telefono, telebista, internet <i>Teléfono, Televisión, Internet</i>	6	10,7	ADSL, internet, TDT seinalea oso gaizki dabilela, mobilen kobertura arazoak daudela eta euskaltelen linearik ez dagoela (beraz konpetentzirik ez dagoela) aipatzen dira gehien. Wifi puntu batzuk jarria behar direla ere. <i>Problemas con la señal de ADSL, Internet y TDT. Falta de cobertura de Telefonía Móvil. No hay línea de Euskaltel. Se deben de instalar puntos WIFI.</i>
Kaleen eta gune publikoen argizatzea <i>Iluminación de calles y espacios públicos</i>	5	8,25	Baserri asko gelditzen direla argirik gabe esaten da. Argiztapen elektrikoa eta ez eguzkiarena eskatzen du batek. Auzune eta falta den lekuetara zabaltzea aipatzen da ere. <i>Se denuncia que hay cortes de luz en muchos caseríos. Se solicita ampliación del alumbrado público en barrios. Hay una solicitud de cambiar el alumbrado solar en los barrios por alumbrado eléctrico.</i>
Aparkalekuak <i>Aparcamientos</i>	4	7,7	Mikel Zaraten aparkatzen galeraztea eskatzen dute batzuk. Ondo dagoela dinoe baina kotxe asko dagoela herrian diote. <i>Se solicita que se prohíba aparcar en Mikel Zarate. Se dice que está bien pero que hay demasiados coches en el Municipio.</i>
Espaloiak <i>Aceras</i>	3	7,2	Konpondu daudenak. Eta Mallabitik Ermura espaloia luzatzea sarri azaltzen da. <i>Arreglar las aceras existentes. Se solicita reiteradamente la realización de una acera entre Mallabia y Ermua.</i>
Alkilerreko lan gune publikoak <i>Espacios públicos de Trabajo en Alquiler</i>	2	5,5	Ez dago iradokizunik. <i>No hay sugerencias.</i>
Beste eskari batzuk <i>Otras peticiones</i>	1	1,2	Geria eta Goita auzoen arteko pasabidea. Pertsona nagusientzat eguneko zentro bat zabaltzea. Monitoredun udal-ludoteka bat arratsalde irekita egongo dena eta urte guztian zehar funtzionatuko duena zabaltzea eskatzen da. Negurako gune estali zabala hurrekin egoteko (parke erdia estaltzea proposatzen da). Ur munizipala zabaltzea Mallabia guztira. Gimnasioko ordutegia zabaltzea. Argizatzea Ermuara doan bidea. Areitioko geltokian "Eusko Tren"eko busak geratzea. <i>Camino entre los barrios de Gereia y Goita. Centro día para personas mayores. Abrir una ludoteca municipal con monitores por las tardes y que funcione todo el año. Acondicionar un espacio cubierto y amplio para niños en invierno. (Se propone cubrir medio parque). Ampliar la red de abastecimiento de agua a todo el municipio. Ampliar el horario del gimnasio. Iluminar el camino a Ermua. Que paren los autobuses de Eusko Tren en Areitio.</i>

### **Zein motatako etxebizitza egokitzen da zure beharretara?**

- Babes ofizialetako etxebizitza, %20ak aukeratzen du.
- Tasatutako etxebizitza, %18ak aukeratzen du.
- Bizitza bakarreko etxebizitza, nekazaritzari lotuta (base-  
rria), %24ak aukeratzen du.
- Babes gabeko etxebizitza (etxebizitza libre), %11ak.
- Tasatutako etxebizitza alokairuan, %16ak aukeratzen du.
- Ez du erantzuten, %11ak.

### **Zein etxebizitza behar ikusten duzu zure familiak izango duela datozen urteetarako?**

- Familiaren etxebizitza aldaketa, %19a.
- Familiako kideran batentzat etxebizitza berria, %35a.
- Inolakorik ez, % 46a.

### **Mallabian zenbat denbora igarotzen duzu?**

- Eguneroko etxebizitza Mallabian dut, %86a.
- Asteburuetan Mallabian bizi naiz.  
Astean bi aldiz nago bertan, %14a.

### **¿Qué tipo de casa se adapta a tus necesidades?**

#### **20% Vivienda protegida.**

- 18 % Vivienda tasada municipal.
- 24% Vivienda unifamiliar agrícola.
- 11% Vivienda libre.
- 16% Vivienda tasada en alquiler.
- 11% No contesta.

### **¿Qué necesidades de vivienda prevés para tu familia en los próximos años.**

- 19 % cambio de vivienda familiar.
- 35 % nueva vivienda para algún miembro familiar.
- 46% ninguna.

### **¿Cuánto tiempo pasas en Mallabia?**

- 86% habitualmente.
- 14% fines de semana.



### **Datozen zortzi urteetan, etxebizitza baten beharra izango duzula uste al duzu?**

- BAI, %48ak.
- EZ, %35ak.
- Ez du erantzun, %16ak.

### **Mallabian nekazal lur publikoak eskainiko balira lantzeko interesaturik egongo zinateke?**

- BAI, %25ak.
- EZ, %53ak.
- Ez du erantzun, %22ak.

### **Garraio-komunikazioei dagokienez, hurrengo beharren garrantzia baloratu.**

- Tren geltokia jartzea, %41ak.
- Herri-gunera sarrerak hobetzea, %31ak.
- Udal taxi zerbitzua jartzea, %34ak.
- Oharra:** galdera honi % 39ak txarto erantzun zion eta % 5,5ak ez zuen erantzun.

### **¿Crees que en los próximos 8 años vas a necesitar una vivienda?**

- 48% sí.
- 35% no.
- 17% no contesta.

### **Si en Mallabia se ofreciera suelo rural público, ¿Estarías interesado en cultivarlo?**

- 25% sí.
- 53% no.
- 22% no contesta.

### **Respecto a los medios de transporte, valorar la importancia de los siguientes servicios:**

- 41% poner estación de tren.
- 34% servicio taxi municipal.
- 31% mejora entradas casco.
- Nota: El 39,0% ha respondido mal a esta pregunta y el 5,5 % no ha respondido.*

# INKESTAREN EMAITZAK / RESULTADOS DE LA ENCUESTA

## Mallabia definitu hitz gutxitan:

- Herri polita, lasaia, atsegina, ederra (gehien errepikatzen direnak).
- Leku ederra bizi izateko baina zerbitzu gutxiarekin eta eguneroko kotxearen behararekin.
- Guztokoa dut, txarrena paseatzeko dena aldapa gora edo behera dela.
- Herri zabala, auzo batzuk besteekin eta kaskoarekin harreman gutxiakoa.
- Herri polita, lasaia baina hobetu daitekeena.
- Bizi izateko leku bat.
- Herri lasaia, non elkarbizitza maila handia dagoen eta ideia guztiak errespetatzen diren.
- Herri bat non Udalak bakarrik dirua kaskoan gastatzen duen. Auzoak dirudi ez direla Mallabikoak.
- Mallabia herri lasaia da piskanaka piskanaka bere herritarren beharrei erantzuten ari dena eta enkanto asko duena.
- Herri txikia eta lasaia, industria gehiegirekin.
- Txikia eta aldi berean handia.
- Herri lasaia, Giro oso ona dago herritarren artean.
- Zerbitzu bariko herria.
- Herri txikia da, nekazaritza baloratzen duena, baina bere sustarra galtzen ari dena.
- Herri txikia, polita; zenbait kasutan baserri eta naturaz zeharkatuta. Biztanleok ondare polit eta oradain ezin hau, zaindu behar duguna. Dena den batzutan hirigintza plan beharrezkoak aldaketak ekar dituzte.
- Ondo ikusten dut enpresa aldetik, baserri giroa bajatzen doa, pena da.
- Lurrez herri handia, biztanlez txikia.
- Herri txikia eta lasaia baina gaur eguneko hazkundearekin zerbitzu barik geratzen ari dena.

## Beste zalantza edo eskakizunik baduzu?

- Eskaintza kultural gehiago eta dibertsoagoa. Kirol aukera gehiago ere.
- Eskaintza kultural handiagoa nagusientzat eta emakumeentzat, M<sup>a</sup> Asunekin geundenean bezala.
- Udararako leku bat habilitatzea: piszina, erreka ( herritik mugitu behar ez izateko). Haurrekin egoteko leku estali bat.
- Lan eskaintza bultzatzea udaletxetik.
- Mugikortasun arazo bat dago Mikel Zaraten (igogailuak). Legislatu eta bere instalazioak errestu beharko lirake. Arazo teknikoak, gandi ezin ez direnetaz aparte bere onuretz informatu behar da hitzaldiak edo informazio kanpainekin.
- Jubilatuen Etxeko arauak bete daitezela (harduradun hautaketa).
- Baserrietan gero eta jende gutxiagok egiten du lan nekazaritzan. Ez dut ondo ikusten baserri baten seme-alabek etxe bat egiterik ezin izatea beraien lurraldean, eta beste herri batera joan behar izatea etxea egitera bere diru sarre-rak ez badatuz nekazaritzatik.
- Eguzki farolak ikuskatu, batzuk urritik ez dabilta.
- Ermua eta Osma arteko espaloia eta argiztapena.

## Define Mallabia en pocas palabras

- *Pueblo bonito, agradable y/o precioso (La definición más repetida).*
- *Bonito lugar para vivir, pero con pocos servicios y con la necesidad de coche.*
- *Me gusta. Lo peor para pasear, que está lleno de cuevas.*
- *Pueblo disperso, con poca relación entre los barrios y el Casco.*
- *Pueblo bonito y tranquilo, aunque se puede mejorar.*
- *Un sitio para vivir.*
- *Pueblo tranquilo, con un gran nivel de convivencia y respeto a las ideas.*
- *Un pueblo donde solo se gasta dinero en el Casco. Los barrios parece que no son de Mallabia.*
- *Mallabia en un pueblo tranquilo que poco a poco está dando respuesta a los ciudadanos y que tiene mucho encanto.*
- *Pueblo pequeño y tranquilo, con demasiada industria.*
- *Pequeño y grande a la vez.*
- *Pueblo pequeño, con buena relación entre vecinos.*
- *Pueblo sin servicios.*
- *Pueblo pequeño, que valora la agricultura, pero que está perdiendo sus raíces.*
- *Pueblo pequeño, bonito, en muchos casos atravesado por naturaleza y caseríos. Un bonito patrimonio que los vecinos debemos cuidar. Después de todo algunos planes urbanos necesarios, han traído cambios.*
- *Lo veo bien por el lado de las empresas, el ambiente del baserri va bajando, es una pena.*
- *Pueblo pequeño y tranquilo, aunque con el aumento de la población se está quedando sin servicios.*

## ¿Tienes alguna otra duda o petición?

- *Más oferta cultural y más diversa. Más opciones deportivas.*
- *Más oferta cultural para mayores y mujeres, como cuando estábamos con M<sup>a</sup> Asun.*
- *Habilitar una zona para el verano: piscina, río (Para no tener que movernos del pueblo).*
- *Una zona cubierta para estar con niños.*
- *Impulsar la oferta de trabajo desde el Ayuntamiento.*
- *Existe un problema de movilidad en Mikel Zarate (Ascensores). Debería legislarse y facilitar sus instalaciones, excepto cuando sean insalvables por problemas técnicos. Debería informarse con charlas o campañas de información.*
- *Que se cumplan las Normas en el Hogar del Jubilado (Elección del responsable).*
- *En los caseríos trabajan cada vez menos personas en la agricultura. No ven bien que el hijo de un agricultor no pueda hacerse una casa en sus terrenos y que tenga que ir a otros pueblos a hacerse una casa si sus ingresos no provienen de la agricultura.*
- *Revisar las farolas solares. Algunas no funcionan desde octubre.*
- *Alumbrado público entre Ermua y Osma.*
- *Bolsa de trabajo, estudios para mayores o cursos de capacitación.*
- *Falta de caminos peatonales y bidegorris.*



- Lan poltsa, nagusientzat ikasketak edo ikastaroak, kapazitazioak.
- Bidegorri edo oinezkoen bideen falta handia dago.
- Ingurune aparta da etxe bat eraiki eta gustora bizi izateko.
- Etxeak eraikitzeko garaian ondo aztertu behar izanak, hazkunde neurgabea kaltegarria izan daiteke.
- Udal-ludoteka, neguan haurrek non jolastu euki dezaten.
- Futbitoko lateralak itxi, euri ari denean erabil ahal izateko edo hotzari aurre egiteko.
- Arandoñon ur-munizipala behar dugu. Noizko?
- Ahalegin berezi bat eskatuko nizueke guztioi Mallabiko kasku zaharra salbatzeko. Alde zaharraren itxura mantendu, berriztatuz bertan dauden eraikinak, etxeak bota gabe.
- Bonbilak eta erropa erabiliak jasotzeko puntu bat.
- Herri rural bat izanda, gure bizitza lurrari gehiago lotuta egon beharko litzateke. Lasaitasuna eta natura. Aukera gehiago etxebizitza bakarrak egiteko.
- Internet eta telefono sare egokia jartzea. Konpetentzia sustatuz.
- Jarleku gehiago falta diren tokietan.
- Zebra bide altuegiak, zarata sortzen dute kaskoan kamioiak bere kargarekin pasatzen direnean.
- Lehen egindako okerrak zuzendu: espaloi, argi, iturri eta abar.
- Ibilgailu aztunen ibilbidea herritik saiestu.
- Pabiloi asko ikusten ditut Mallabin baina lanpostu gutxi.
- Intxaurti kaletik eskolara ibilgailuen abiadura kontrolatzeko moduren bat bilatzea (badenak, espaloia, semaforoak...).
- *A la hora de construir viviendas, analizar bien las necesidades, ya que el crecimiento desmedido puede ser perjudicial.*
- *Entorno excepcional para construir una casa y vivir a gusto.*
- *Ludoteca para niños y un lugar para jugar en invierno.*
- *Cerrar laterales del campo de fútbol, para poder jugar cuando llueve y hace frío.*
- *Necesitan agua municipal en Arandoño. ¿Para cuándo?*
- *Se pide un esfuerzo especial para expandir el Casco Viejo del pueblo. Proteger la imagen del casco, renovando las viviendas existentes y sin tirar casas.*
- *Punto de recogida de bombillas y ropa.*
- *Sin duda un pueblo rural, debería tener una vida más unida a la tierra, tranquilidad y naturaleza. Más opciones para construir viviendas aisladas.*
- *Una red adecuada de Internet y Teléfono. Fomentar la competencia entre las compañías.*
- *Instalar más bancos (mobiliario urbano), donde sea necesario.*
- *Los pasos de cebra son demasiado altos, hacen ruido los camiones con carga, a su paso por el Casco.*
- *Corregir los errores anteriores (aceras, luz, agua, etc).*
- *Evitar el paso de tráfico pesado por el pueblo.*
- *Se ven muchos pabellones en Mallabia, pero pocos puestos de trabajo.*
- *Buscar la forma de controlar la velocidad de los coches desde la calle Intxaurti a la Escuela (badenes, aceras, semáforos, etc).*



# Inkestari buruzko hausnarketa

Inkesta Mallabiko etxe guztietara bidali zen 430 etxe inguru. %9 baino ez du erantzun, beraz, parte hartze oso eskasa, eta ilusio falta nabaria da Mallabiko Plan Orokorren inguruan.

Izan daiteke jendeak ez ikustea loturarik Plana eta inkestaren artean, edo izan daiteke jendeak ez jakitea zer suposatzen duen Plan orokor batek herriarentzat. Gu gehiago jotzen dugu partizipazio ohitura faltaren alde.

Lojiko da inkesta gehienak kaskoko familietatik ailegatzea urbiltasun eta errestasun aldetik. Auzoetatik etorri direnak zerbait adierazi nahi izan dutelako espreki edo interes berezi bat zutelako erantzun izan dute. Beraz alde horretatik inkestak eduki eta aportazio oso aberasgarriaekin jaso izan ditugu.

## Familia osaketaren inguruan

Familiaren konzepto tradizionala Mallabian Europan bezala desagertzen da. Gaur egun oso arrunta da mallabian bat, bi, hiru eta lau kideko familiekin aurkitzea (%85). Beraz orain arteko etxebizitzaren konzeptoa ere aldatu beharko da behar izanaren arabera.

## Biztanleria sexu eta adinez

30urtetik 50urtetarakoak nabaritzen dira (bayby boomaren garaia).

Alderantzizko piramidea sortuko liteke (zahar gehiago gazteak baino). Europan nahiko normala.

Haurrak ugalduko dira gazteei etxebizitza aukera eskaintzen bazaie.

Gaur egun mantendu egiten da populazio kopurua, hurrengo urteetan joera gutxitzearena izateko arrisku oso handia dago.

Eguneko zentroa gero eta beharrezkoa ikusten da kontuan hartuta familiaren osaketa eta populazioaren adina.

**Eguneko zentroa gero eta beharrezkoa ikusten da kontuan hartuta familiaren osaketa eta populazioaren adina.**

## Lana eta ikasketak

Familia askotan bi kide egiten dute lan (%52,9) honek haur eskolaren zerbitzua berarekin dakar, familia eta lanaren arteko konziliazioa eta abar.

Mallabian %34ak eta Durangalderako joera indartzen hasi da Debabarrenaren aurrean.

Ikasketetan ere Durangalderako joera indartzen da Debabarrenaren gainetik. Hemen garbi dago Mapa eskolarrak bere eragina euki izan duela.

Atenzioa deitu izan digu zerbitzuen aldeko joeraren hazkundera eta nekazaritza eta abeltzantzaren aldeko nahia industriaren galeran, mallabiko ekimen ekonomiko garrantzitsuena industria denean.

## Udalerriko gune eta hiri zerbitzuetan, hobekuntza beharrak

Bidegorri eta pasealekuen beharra oso nabaria da herritarren artean. Bigarren bloke batetan bide konponketa eta kirol eta hasialdi ekipamendua geratuko litzateke.

Harriagarria egin zaigu Telefono, telebista eta interneteko arazoak hain atzean geratzea Mallabia bere kokapena eta orografiagaitik **punto beltza** izan danean telekomunikazioetan eta benetako arazo bat dagoenean arlo honetan.

Herritarrak informatzen lan gehiago egin behar dugula garbi dago. Adibidez, zeintzuk diren Bizkaiko Foru Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren konpetentziak eta zeintzuk Udalarenak, 2006ko urtean Eusko Legebiltzarren onartu zuen Lurraren Legearen inguruan eta Lege honek dakarren ondorioetatik Mallabiko lurren antolaketan eta Udalak eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinetatik. Azken honen adibide bat: Udalak jartzen du herriak horrela eskatuta kirol zerbitzua pilotalekuan. Bertako diru sarrera eta gastuen artean 50.000€tik gorako defizita sortzen da urtero. Nola da posible arratsaldetan zabaltzea? Erabiltzaileak prest daude galera honi aurre egiteko? 1100 biztanlekin posible da beste zerbitzu hain defizitarioa zabaltzea igerileku batzuk bezala? Kirol arloan ez ahal dago nahiko ekipatuta gaur egun Mallabia? Guzti hau Plan Orokorrean estabaidatzen da ere.

Ur munizipala herri guztira zabaltea eta saneamenduak iradokizunen artean aipamen berezia merezi dute.

Ludotekaren beharra arratsaldetan eta euria egiten duenerako aterpe bat kaskoan, bertan babes-teko haurrak eta gurasoak ere sarri aipatzen dira.

### **Etxebizitza**

Garbi dago herritar gehienak ez dutela EAEko 2006ko Lurraren legea edo 2007ko Estatuko Ley del suelo ezagutzen.

Baserriak hustutzen ari dira baina jendeak txaletak egitea nahi ditu.

Baserri handi baten bi pertsona bizi dira baina bere seme-alabek nahi dute euren autonomia euki ahal izateko euren lurretan txaleta eraiki.

Inkestetan diote %24ak bizitza bakarrekotxe bizi, nekazaritzari lotuta, nahi duela; gaur egun Mallabian, Nekazaritza edo abeltzantzatik bakarrik bi familia bizi direnean.

Bigarren aukera babes ofizialeko etxebizitza da, %20ak aukeratzen du. Nahiko antzera daude tasatu munizipala (%18a) eta tasatua alkillerrean (%16a). Kaskoan hauen autoa egokiena izango litzateke etxebizitza libreari beti aukera bat utziaz.

Erantzun duenaren %86a bertan bizi da eta bertan egunero egiten du lo. Eta %35ak dio urren goi-urteetarako familiako kideren baten-tzat etxebizitza beharko lukeela. %46ak dio ez duela inolako etxebizitza behar.

Orokorrean, etxebizitzaren bahrara %25ak ikusten du Mallabian, %53ak ez du etxebizitzaren beharrik ikusten.

### **Mallabia definitu hitz gutxitan**

Herri lasaia eta txikia da gehiango zabal batek Mallabia definitzeko hitz erabilienak. Zerbitzu gabeko herria, nekazal kutsua galtzen ari dena, jende irekiarekin eta industria askorekin.

### **Beste zalantza eta eskakizunak**

Gaur daukaguna da ikusten duguna. Plan orokor honekin bihar



(hemendik hamar urtetara) zer Mallabia nahi dugun diseinatzea da egin behar duguna. Ea herri bezala hazi behar garen, zenbat, norantza, zer zuzendu bahar den eta hau, aurreko urteetan egindagoak ere erakutsi behar digu.

Herri-informazioa funtzekoa da, araudiak, legeak, zer egin daitekeen, zer ez. Parte hartzea garrantzitsua da eta parte hartzea nahi duenak informatuta egon behar du.

Adibidez, burutzen diren ekintza industrialak nekazal lurretan honen adibide dira. Garbi euki behar da nola jokatu eta legedia oso garbi mintzatzen da honetaz. Inork ez du honetaz aipamenik egiten inkestan.

Esaten da ere inkestan behin baino gehiagotan Mallabiko alde zaharra mantendu egin behar dela. Ahal dena mantendu egin beharko da gaur egun ez dalako bideragarria Kalbario kaleko hainbat etxe mantentzea eta erortzeko benetako arriskuan daudelako hainbat. Nola heldu gara egoera honetara? Zer egin behar da egoera hau errepikatu ez dadin? Gaur egun lau etxe bota behar dira duten arriskuarengaitik, baina arriskuan Mallabiko kaskoan zazpi daude.

Zer gertatuko da beste hirurekin? Hainbat baserriekin gauza bera gerta daiteke.

Bideragarria da babes neurriak jartzea eraikin batentzat bere jabeak bere horretan uzten badu? Zertarako balio du baserri bat monumento izendatzea bertan ez bada inor bizi eta erortzen ari bada ez duelako eroslerik eta izendapen honek erosle posibleak uxatzen baditu?

Baserrak hustutzen ari dira edo hauen espazioa bat, bi edo hiru pertsonak aprobeztatzen dute eta txalet gehiago nahi ditugu egin. Txaletak nahi ditugu egin gaur egungo nukleo ruraletan eta kontuan ez dugu hartzen beharrezkoak izango ziren zerbitzuak eta hauek eraikitea ekarriko lukeen kostua herriarentzat asumiblea den. Herritarrek kaleko zerbitzu berberak eskatzen dituzte urbanoak ez diren lurretan. Posible ahal da?

Bidegorriak, atsedenlekuak, luduteka, eguneko zentroa, igerilekua, telefonia eta internet zerbitzu egokia, eskaintza kultural aberasgarriagoa, dauden instalazioak mantendu eta kontserbatu era egokian, hauek dira gehien errepikatzen diren eskariak.

# Laburbilduta, hainbat barri

## TRABAKUKO PASABIDEA

Bizkaiko Batzar Nagusiek Aldundiari eskatu diote Trabakuko pasabidea eraikitzeko.

Azken lau urtetan hiru aldiz eztabaidatu da gai hau Bizkaiko Batzar Nagusietan eta azkenean irailean alderdi guztien adostasunarekin eta EAJ-PNVren abstentzioarekin adostu zen behin behingoz konponbidea eman behar zaiola Trabaku gainean Geria eta Goitako auzoen artean dagoen arazoari. Ez dute esan zein izan daitekeen konponbidea baina behintzat hau eskatu diote Aldundiari. Ea Aldundiko aurrekontuetan partidaren bat gordetzen dan proiektua aztertzeke eta hainbeste denbora itxaron gabe (hamabost urte baino gehiago daramagu arazo honekin) auzotarrekin eta udalarekin adostuaz konponbide bat ematen zaion arazo honi behingoz.



## PASAKO AHAL DA TRENA MALLABIKO KASKO ONDOTIK?

2008garren urtean eman ziren lehen pausoak: aukerak aztertu, osoko bilkuran onartu proposamena, Debabarreneko eskualdeko zortzi udaletako ordezkariekin elkartu eta Jaurlaritzari eskaera luzatu zortzi alkateok batera, Eusko Trenbideko eta jaurlaritzako ordezkariekin batu... Jakitun geunden hainbat teknikari ibiliak zirela aukera hori aztertzen baina euren berririk ez genuen. Urrian eta azaroan zehar jaso izan ditugu udalean Donostia-Bilbao trenbidearen bikoizketaren alternatiba ezberdinak Zaldibar eta Ermua

arte. Eurretari bat Mallabiabarrena inguruan tren geltoki bat eraikiaz azaltzen da. Zaldibartik Ermura guztiz lur azpitik pasako zen eta tren geltokia bera be lur azaletik 20 metrotara izan daitekela dio alternatiba horrek. Guk oraingoz alternatiba hauei buruzko gure iritzia bidali dugu Jaurlaritzara eta datorren abenduaren 9an eurekin batuko gara berriro ere. Proiektu hau hasi berria da, edozein izanda ere aukeratutako erabakia oraindik luzea izango da burutu arteko denbora.

## KULTUR ETXEAN WIFIA MARTXAN

Abenduan jarri da Kulut Etxeko Wifi gunea martxan. Nahi duzuenok bertaratu eta bertako langilearekin dituzuen zalantzak argitu eta gero erabil dezakezue sistema hau.

## ABENDUA EKITALDIZ GAINEZKA

Oraindik ahaztu gabe Urriko jaien arrakasta eta erre-saka pasa gabe. Azaroaren 20an Jasokunde eta Mendibil abesbatzen emanaldi arrakastatsuaz gozatu ahal izan genuen eta Orratioren eskutik "gaztaina erre" ospatu ondoren Izar Gorri Elkarteak "Ahaztuen Memoria"ren inguruan azaroaren 27 eta 28an hainbat ekitaldi antolatu zituen. Abendua asto proben lehiaketarekin hasi zen eta Gabonekin batera Pantxoa ta Peioren konzertua, haurren jolas parkea, Gabon Zaharretako bouketa eta abar izango dira. Badago nahi duenarentzat ondo pasatzeko aukera.



MALLABIKO  
UDALA